



## Leitzaldeko 57 eragilek jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

**BERRIAK** ▶ laz baino 9 gehiago dira aurten; 9 eragilek dute jada Ziurtagiria Areson, eta 48k Leitzan

**EUSKARAREN ALDE** ▶ Kontseiluak «konpromisoak betetzeagatik eta berritzeagatik» zoriondu zituen ▶ 7



Bai Euskarari Ziurtagiria jaso duten Aresoko eta Leitzako eragileak, bi herrietako alkateekin eta Kontseiluko idazkari Mendigurenekin. J. ASTIBIA



I. TERRADILLOS

## Eskualdeko hiru begirada erremonteari

**TOLOSALDEA** ▶ Xanti Aizpurua tolosarrarekin, Patxi Zeberio elduindarrarekin eta Garikoitz Altuna amezketarrarekin hizketan ▶ 5

TOLOSA ▶

## «Taldeen maila altua eta jendetza kontzertuetan», Tolosandblues-en

Antolatzaileak «oso pozik» dira bigarren edizioarekin ▶ 2

**SELEKTIBITATEAN  
2006. URTEAN  
% 100 GAINDITUAK!**

**BATXILERGOAK**

-Giza eta Gizarte Zientziak  
-Natur eta Osasun Zientziak  
-Teknologikoa

**LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK**

**Erdi Mailakoak**

-Mekanizazioa  
-Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

**Goi Mailakoak**

-Proiektu Mekanikoen Garapena  
-Instalazio Elektroteknikoak  
-Gizarte eta Kultur Animazioa

**KOLOKAZIO MAILA  
OSO ALTUA!**

Enpresa-praktikak bertan eta atzerrian (aurten ipar irlandan, polonian eta lituanian)!



**IES Hernani BHI**  
A. Iturriago - K. Labaka

**Matrikula epea:**  
ekainaren 30etik uztailearen 6 arte

SANTA BARBARA AUZOA eta KARMELO LABAKA  
HERNANI  
TELEFONOA: 943 551188  
WEB: [www.hernanibhi.com](http://www.hernanibhi.com)  
E-MAILA: [institutua@hernanibhi.com](mailto:institutua@hernanibhi.com)



MUSIKA ▶

# «Taldeen maila altua izan da eta kontzertuetan jendetza bildu da» Tolosandblues-en

Iñigo Martin jaialdiko antolatzailea «oso pozik» azaldu da orokorrean bigarren edizioak emandakoarekin; entzule gutxien «igandeko emanaldiak» izan du

NOELIA LATABURU

Iragan igandean eman zioten amaiera Tolosandblues jaialdiaren bigarren edizioari. Hiru egunetan zehar Tolosako kultur gune ezberdinetan jazz eta blues doinuak izan dira nagusi. Guztira sei talde aritu dira Fronton kafetegian, Plaza Berria eta Alde Zaharreko kaleetan barrena. Orokorrean, edizioaren «oso balorazio baiko-rra» egin du jaialdiko antolatzaile Iñigo Martinek. Hala, «taldeen maila ona eta emanaldi gehientsuenek erakarritako jendetza» gorapatu ditu.

Iazkoan maila «altua» izan bazen ere, jendeak ez zuen nahi adina parte hartu. Aurten, ordea, hori aldatu eta «partaidetza ona» izan da, batik bat Iñaki Salvadorren, Paul Lamb & The King Snakes eta Naco Goñi, Francisco Simon eta Edu Big Hands taldeen emanaldietan. «Emaitza onak lortzeak animoa eta indarra ematen du aurrera jarraitzeko», azaldu du Martinek, balantzea egiterakotan. Tolosandblues ekimena sortu zutenen helburua, hain zuzen ere, urtez urte «gora» egitea da eta blues eta jazz jaialdian ere «erreferentzi garrantzitsua» bilakatzeko.

Haatik, «hobetu beharreko alorrak» ere igerritu dituzte bigarren edizio honetan. Besteak beste, igandean Elkano Browning Cream-en emanaldian «oso entzule gutxi» izan zen. Antolatzailearen esanetan, «pena» izan zen; izan ere, «oso talde ona» da. Aukeraturtako ordua edota igandeko giroa izan zitezkeen arrakastarik ezaren arrazoiak, Martinen ustez, «Agian egunen egitura be-



Paul Lamb & The King Snakes taldekoek 200 lagun inguru bildu zituzten Plaza Berria. HITZA

rrantolatu beharko genuke». Halaber, Stay Blues-en emanaldiak zaletu gutxi lortu zituen «intimistegia» izan zelako. Musika ona izan zen, «baina indarra falta somatu zen». Aurki balantzea egingo dute, datorren urterako aldatu beharrekoak aztertuko dituztelarik.

## Berrikuntzekin «gustura»

Amama Luisa Big Band taldeak kaleak girotzeko ardura hartu zuen larunbat arratsaldean, eta bete ere «ederki» bete zuen bere funtzioa. Alde Zaharreko merkatariek jaialdiari eskainitako babesa dela eta, inguru horretan aritu ziren blues doi-

nuak zabaltzen. «Euskaldun hauek egitarau klasikoak eskaini zuten; gune batzuetan beste-etan baino jarraitzaile gehiago izan zituzten baina esperientzia errepika daiteke».

Beste berrikuntzen artean, larunbat gaueko kontzertua izan zen, non hainbat musikarik bat egin zuten, Naco Goñik, Francisco Simonek eta Edu Big Hands-ek, hain zuzen ere. «Sekulako kontzertua eskaini zuten eta jendetza elkartu zen Frontonen, amaieran gehiago eskatu zituztelarik». Lehen aldiz aritu ziren guztiak batera, blues klasikoarekin eta bi gitarrarekin. Martinek jakitera emandakoaren arabera, Naco

Goñik amaieran diskoak eta guzti saldu zituen «bluesak Tolosan ere jarraitzaileak dituenaren seinale».

Iñaki Salvadorren jazzarekin ere «gustura» azaldu zen Fronton kafetegia bete zuen ikusentzulegoak. Benito Lertxundiren, Juan Manuel Serraten, Mikel Laboaren eta Silvio Rodrigezen abestien bertsoiak jo zituen Salvadorrek, Ainara Ortégaren «ahots ederraren» laguntzarekin.


Arazoak arazo eta aldaketak aldaketa, datorren urtean ere «gogotsu» ekingo diote antolaketari, beti ere «akatsak errepikatu gabe eta hobetu beharrekoak aztertzen».

## «Ondo aritu al naiz?»

«Kontzertua gustuko izan al duzue? Ondo aritu al naiz?» Hauxe bera birritan galdetu zien Paul Lamb harmonikajoleak Tolosandblues jaialdiko antolatzaileei bere kontzertuaren amaieran, larunbatean, Iñigo Martinek jakitera eman zuenez. Plaza Berria utzi eta Fronton kafetegiko emanaldian ere izan zen blues musikaria. «Bere buruarekin oso zorrotza da; hori dela eta, egindako lanarekin arduratuta zegoen», azaldu zuen Martinek.

Bigarren edizioko izarrazen Paul Lamb eta bertaratuak inplikatzeko lortu zuen «maiusatasunez» eta giro beroa piztu zuen Plaza Berria. Harmonikaren teknika ederki menderatzen du Lambek eta alboan zituen musikariak ere, The King Snakes taldekoak, «fin» aritu ziren. Antolatzaileek talde hau ekartzekoan izandako «zalantza» aitortu dute gerora. «musikari hobegoak egon badaudelako», baina «bete-betean asmatu dugu eta aurreikuspenak hautsi ditu».

Guztira, 200 lagunetik gora bildu zen Paul Lamben emanaldiarekin gozatzeko. Blues musika lehen aldiz entzuten zutenek «ezusteko baikorra» jaso zutela adierazi zuen Martinek, eta zaletuak, berriz, «oso pozik» azaldu ziren Ingalaterrakoak eskainitako «maila altuarekin». ◀



Paul Lamb. HITZA

## iragarki laburrak ▶

### LAN HEZKUNTZA

**Osakidetza.** Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

**Diputazioak.** Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

**Laborategi teknikariak.** Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

**Liburutegi** laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

### Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorulaze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro...

udalebeetan administrari laguntzaileak behar dira.

943 313782.

**Peoiak,** garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitze: 943 313782.

**Haur zaintzaileak,** hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak.

943 313782.

**Peoiak.** Udalebeetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

**Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa.

943 313782.

HEZKUNTZA ▶

# Hirukidekoentzat elkartruke garaia da azken hiruhilabetea

Polonia eta Ingalaterra bisitatu dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 130 ikaslek



Polonian, Hirukideko ikasleek taldean ateratako argazki bat da hau. HITZA

**ESTI EZEIZA**

Hirukiden azken lauhilabetea elkartruke garaia da. Bost bat urte igaro dira ekintza honekin hasi zirenetik, eta dagoeneko finkatua dago. Apirilean, Aste Santuetako bigarren astean, Batxilergoko lehenengo mailako 39 ikasle Poloniarra abiatu

ziren. 15 egunetan zehar, autobusez, Poloniaz gain, Paris (Frantzia), Salzburgo eta Viena (Austria) eta Venezia (Italia) bisitatzeko aukera ere izan zuten.

Elkartruke honen helburua kulturala da batik bat, elkarbizitza baztertu gabe betiere, eta bide batez, ingelesa hobetzeko aprobetxatuz aukera. Trukea

Poloniako Eskolapioetako beste ikastetxe batekin gauzatzen da, eta bertako familiek etxean hartzen dituzte eskualdekoak.

Bestalde, ingelesa bultzatzeko beste ekimenen artean, ekainaren 22rarte, ikasle batzuk Ingalaterran aste eta erdiz egon ziren. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren

mailako 53 ikasle, hau da, ia maila horretan daudenen erdiak. Baita laugarren mailako 34 ikasle ere. Hala, ikasle kopuru handia dela eta, ikastetxe bat baino gehiagorekin egin behar izan zuten trukea aurten Hirukidekoek, eta autobusez egin zuten bidaia.

Elkartruke honek ingelesa erabili eta maila hobetzea ditu ardatz nagusi, hau da, xede nagusia linguistikoa da. Inguruko gauzak ezagutzeaz gain, hizkuntza asko azpimarratzen dituzte.

Behin han daudenean, goizetan, talde guztiak batera, inguruak ezagutzeko aprobetxatzen dute. Arratsaldeetan, berriz, Polonia eta Ingalaterrako ikasleekin ibiltzen dira, hango ohiturak ikusteko eta herritarrek gehiago ezagutzeko. Eta asteburuak familiekin igarotzen dituzte. Bestalde, egunetako batean, ikastetxeetan geratzen dira, hauen eguneroko funtzionamendua nolako den ikusi ahal izateko.

Hirukidekoek esan dutenaren arabera, «esperientzia ezin hobea da eta udazkenean bai poloniarrek bai ingelesen egingo diguten bisitarekin zain gaude». Izan ere, urrian ordaina etorriko da, eta kanpoko ikasle taldeak etorriko dira aste bat igarotzera eta, bide batez, Euskal Herria ezagutzeko. Jardunaldi hauetan Eskolapioetako irakasle nahiz guraso guztiak inplikatzeko dira. Adierazi zuten, lehenengo urtean zaila zen prest zeuden familiak aurkitzea, baina orain ez dago horrelako arazorik, egitasmoa egonkortu baita. «Trukearen ondoren harremanak sortzen dira, eta erlazioak luzaroz mantentzen dira».

HEZKUNTZA ▶

## Eskolako Agenda 21 programa saritu dute, 2005-2006 ikasturtean «ondo egindako lanagatik»

**SINADURA**

Tolosako Eskolako Agenda 21 saritu du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen departamentuak, 2005-2006 ikasturtean burutu-tako ekimenengatik. Nazioarteko Ingurumen Eguneko Udalsarea sarien deialdiaren barne dago aipatutako errekonozimendua. Tolosaren kasuan, saritzeko, hauxe izan dute kontuan: Eskolako eta Tokiko Agenden arteko «koordinazio lan bikaina», *Kalea Bizi* izeneko programaren garatzea eta bata bestean txertatzea.

Landutako gaiak kontuan hartu ditu herrian jolasteko eta aisirako dauden gune publikoak, eta haien erabilerak, gabeziak, egitasmoak... aztertu dituzte. Diagnostika egiteko garaian Tolosako zenbait gune aukeratu zituzten gaztetxoek, eta hauen inguruko azterketa bat egin zuten: Zumardi Handia, Haur Parkea, Zerkausia eta Sortzez Garbia plaza.

Eskolako Agenda 21eko ordezkariak «oso gustura» hartu dute saria, eta 2006-07 ikasturteko gai nagusia finkatu dute jada: hiri hondakina, zaborra.



Eskolako Agenda 21eko ordezkariak, saria jasotzerakoan. HITZA

MUSIKA ▶

### Bonberenea txaranga sanferminetan

Asteburu honetan, larunbatean, hilak 8, Bonberenea Txaranga Iruñeko San Fermin jailetan izango da hango jaia alaitzeko asmotan. Goizean zehar eta arratsaldean ere Iruñeko jai nagusian parte hartuko dute eskualdekoek.

INFORMATIKA ▶

### Ordutegi aldaketa uztaila amaierara arte KZgunean

Oporretako hilabetean sartu gara dagoeneko, eta Tolosako KZgunean ere nabarituko da opor giroa. Hala, urtero moduan, ordutegia aldatu egingo dute hilabete honetan, hain zuzen ere, uztailaren 28ra arte. Hilabete honetan, beraz, goizez soilik zabalduko ditu ateak KZguneak, zortzietatik ordu bitartean.

**TELEFONOAK ▶**
**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
  - ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
  - ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Lizarra S.L.  
emakumeon  
esplotazioaren  
adibide

Sarri hitz egiten da emakumeak lan munduan jasaten duten diskriminazioaz eta sarri entzun ohi da ere mundu zabalean ematen diren esplotazio krudelenen adibide desberdinez. Datuek adierazten dute Euskal Herrian bertan ere eta urrutira joan gabe zein egoerak bizitzan dituzten emakumeek lan munduan. Baina gehienetan soilik datuak ematen dira, baina ez dira *errealitateak* ikusten. Idatzi honen bitartez, datu horien atzean ezkatzen den errealitate zehatz bat salatu nahi da. Gure herriko enpresa txiki batean emakumeen lan zapalkuntzaren adibide bat.

Lizarra S.L. Lavanderia Aste-

asuko industriagunean dagoen enpresa (horrela deitu baliteke) bat da. Bertako aktibitate beste enpresetako langileen jantziak garbitu eta konpontzea da, hau da, enpresetako zerbitzu modura antolatutako langintza da aurrera ateratzen dena. Honetarako bi lagun ibiltzen dira jantziak biltzen eta errepartoan (kasualitatea, baina biak gizonezkoak) eta 8 lagun jantziak garbitu, tolestu eta konpontzen (hemen ere kasualitatea, baina gehientsuenak, denak ez esateagatik, emakumezkoak).

Famili *enpresa* bat da, hau da, aita, ama eta hiru semeak. Semeetariko batek *gerente* lanak egiten ditu eta beste bi semeak aktibitateko martxaren kontrol zorrotza ematen dute beraien gurasoen zaintza zorrotzpean. Laburtuz, 10 pertsonetatik 5 dira lanerakoak.

Emakumea da enpresa honetako produkzioaren oinarri.

Lan baldintza kaskarretan, lan gogorra eta gaizki ordainduriko produkzio/zerbitzurako, noski!, emakumeak behar dira. Zein merke ateratzen diren emakumeak zenbait lan egiteko, baina *arazo* bat dute, hau da, haurdunaldia. Datu bat aipatzearen esan enpresa honetan oraindik ez dela ezagutu ama izan den emakumerik lanean. Enpresa honetan emakumeak haurdun gelditze behin baino gehiagotan pensatu behar dute. Idatzi honen funtsa hemendik dator. Gauza da azken hiru urtetan (2.003 urtetik hona) hiru emakume arazoak izan dituztela haurdunaldia dela eta. Haurdun gelditu eta baja kontuak, medikurako bisitak... direla medio oztipoak eta jarrera txarrak nagusitzen dira, mesfidantza eta presio izugarriak tarteko direla.

Lehenengoaren kasuan jarrera nahiko zorrotza izan

zen, lanera inolako faltarik egin ez zezan eta gauzak ahalik eta azkarren egin zitzaizkion.

Bigarrenaren kasuan antzeko jarrera ikusi ahal izan zen eta azkenik, eta larriena, hirugarren kasuarekin suertatzen da. Azken honen kasuan mesfidantza eta presioa topera igo zuten; baja agiriak emateko garaian kasurik egin ez edo eta galderak bata bestearen atzetik erantzun beharra, begiratu txarrak, mespretxua bere espresiorik gordinenean. Hau gutxi ez balitz, emakume honen abortoa izan eta non esaten dion enpresako gerenteak oraindik duda egiten duela abortoa izan duenik ere.

Oraindik sinetsi ezinik lana uzteko teknika guztiak jartzen dituzte martxan (emakume hau fijoia da eta inolako kosturik gabe bidali nahi dute). Emakumeak lurrazpitik indarrak atera eta medikuak alta ematen diotenean lanera joaten da.

Egun horretan bertan enpresako gerenteak lanean ez duela ikusi nahi esaten dio, eta bidali egiten du.

Sei hilabete luzeetako sufrikario honetatik emakumea zutik ateratzen da, baina oraindik ere zur eta lur eginda. Izan ere, nork uler eta onar lezake honelako mesprezu eta despota jarreraren duen edonor? Berdintasuna, zer berdintasun? Eskubideak? Zein eskubide?

Jakin dezatela honelako gerterearen aurrean ezin dela inor isilik gelditu, ez garea kokilduko eta gure eskubideen alde aurrean edukiko gaituztela. Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren bidean honelako pertsonak zuzenean markatuko ditugu, eta ez dugu espresiorik txikiena ere onartuko.

Honelako egoerekin orain amaitu behar dugu!

OLATZ AMIANO ▶  
TOLOSALDEKO LAB-EN IZENEAN

## ANOETA-IRURA ▶ EUSKARA

Hizkuntzaren  
etorkizunerako  
ereduak

Bukatu berri den ikasturtean sei irurar eta bi anoetar aritu dira euskara ikasten



Euskara ikasten airtu diren irurarrak eta anoetarrak. HITZA

## IMANOL GARCIA

Sei irurar eta bi anoetar aritu dira pasa den ikasturtean euskara ikasten Irurako eta Anoetako Udalak antolatutako taldean. «Meritu handia dute», azaldu du Idoia Olano bi Udalak euskara teknikariak. «Erdaldunen artean eredu dira egiten duten ahaleginagatik».

Ikasturte amaieran ikasleek egindako balantzea ona izan da, eta datorren ikasturtean jarraitzeko asmoa dute. Aurten Aitor Olano izan da irakaslea eta esan daiteke ia irakaskuntza pertsonalizatua egin behar izan duela. ikasleak ez baitute maila bera eta batzuk hobeto moldatzen direlako idazten eta beste batzuk hitz egiten.

Maite Irurtia izan da ikasleetako bat. «Oso gustura nago klaseekin», dio anoetarrak. Ez da bere lehenengo urtea euskara ikasten eta gero eta gehiago ikasten ari dela dio: «Gero eta gehiago jakin, orduan eta azkarrago aurreratzen duzu». Farmazia du Anoetan eta pixkanaka bezero batzuekin euskaraz egitera animatzen da.

«Utertu hitz egin baino gehiago egiten dut, baina esan ohi den bezala, praktikatu ikasten da hizkuntza bat». Berak ahalegin hori egitea erabaki du.

## Diru laguntzak

Anoetako Udalak jakinarazi duenez, 2005-2006 ikasturtean (urria-ekaina bitartean) euska-

ra ikasten aritu diren anoetarrek diru laguntza jasoko dute matrikula ordaintzeko. Eskaera egiteko epea hilaren 17an amaituko da.

Interesatuek udaletxean aurkeztu behar dituztenak: eskaera-orria behar bezala beteta (orria udaletxean eskatu); nortasun agiriaren fotokopia; banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, kontu baten titularrak dela egiaztatzen duena; banketxe edo aurrezki kutxak emandako ordainagiria, matrikularen diru-sarrera egin dela egiaztatzen duena; lan-egoera ziurtatuko duen agiriaren fotokopia (langabezian, jubilatu edo ikaslea); eta euskaltegiak emandako ziurtagiria, non adierazi behar den euskaltegian ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua, asistentzia-portzentajea eta klaseen aprobetxamendua.

## iragarki laburrak ▶



**Alkiza.** Familia bakarrerako baxeta, 4.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin, hiru solairurekin, eta hauekako bakoitzak 120 m<sup>2</sup> ditu.

**Andoain.** Santa Kruz auzunea,

80m<sup>2</sup>ko bi etxebizitza erreformatuak, kanpoaldera, igogailuarekin, eta bista ederrekin.

**Andoain.** 90m<sup>2</sup>ko etxebizitza eraberritua, sartzeko moduan, kanpoaldera eta eguzkitsua.

**Belantza.** Bi familiartzeko etxebizitza, bi solairurekin eta 270m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

**Berastegi.** Familia bakarrerentzako baxeta, 3.500 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

**Donostia.** Antiguu, Eskolta Real, etxebizitza eraberritua, kanpoaldera.

**Errioxa.** Etxe abikiak, familia

bakarrekoak eta etxebizitzak ditugu, Errioxako zonalde desberdinetan, Logroño eta Najeratik gertu.

**Irura.** Laskibarreko zonaldea, hiru logelako etxebizitza, garajearekin, giltzak uztaila amaieran emango dira.

**Tolosa.** Zumalakarregi. 150 m<sup>2</sup>ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko azken apartamentua, 65 m<sup>2</sup> erabilgarri.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, logela bakarreko apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.

**Tolosa.** Trinkete plaza, 3 logelako etxebizitza: egongela, sukualdea terrazarekin, bainugela, komuna eta garajea aukeran.

**Tolosa.** Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukualde, terraza, bainugela, komun, trasteleku eta garaje ibixiarekin.

**Tolosa.** Araba etorbidean, 4 logelako etxebizitza, egongela, sukualdea, komuna, bainugela, terraza, trasteleku eta garajearekin.

**Tolosa.** Errementari kalean, 3 logelako atikoa, egongela, sukualdea eta bainugela. Berritua.

**Tolosa.** Berdura plazan, merkataritza zentru erreformatua salgai, dena erakusleho.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, 45m<sup>2</sup>ko lokal xarmanta, erakusleho handiarekin.

**Tolosa.** Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erazugailuak 9.480 euroatik.

**Tolosa.** Usabalen, 350 m<sup>2</sup>ko pabiloia, alokairuan abuztutik aurrera. Bi zubi garbarekin, bulego, bainugela eta abarrek hornitua.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel, 50m<sup>2</sup>ko bulegoa.

ERREMONTA ▶

# Saski pilotakadak

Gipuzkoako Txapelketan txapeldun eta txapeldunorde izan dira Altuna, Zeberio eta Aizpurua, «komunikabideek bultzatzen ez duten» kirol euskaldunean



Garikoitz Altuna, Patxi Zeberio eta Xanti Aizpurua, Gipuzkoako Erremonte Txapelketako eskualdeko hiru jokalaria. INIGO TERRADILLOS

## NEREA URBIZU

**J**akina da Euskal Herrian kirolarekiko zaletasuna: futbola eta pilota errege diren honetan, erremontea ere dugu, arbasoen arteko apustuen zio hainbat kasutan.

Erremontea aukeratu zuten bizibide Patxi Zeberio elduaindarrak, Garikoitz Altuna amezketarrak eta Xanti Aizpurua tolosarrak neurri handi batean.

Ekainaren 24an Gipuzkoako

Erremonteko finala jokatu zuten Altuna II.a-Aizpurua II.ak eta Zeberio II.a-Zubizarretak, beste sei bikoteren aurka lehiatu eta haiek kanporatu ostean. Garaileak orduan Altuna eta Aizpurua izan ziren, nahiz eta faboritoak Zeberio eta Zubizarreta izan. 40-28 bukatu zen partida. Dena dela, harri-garriena finalean eskualdeko hiru jokalaria aritu izana da.

Galarreta enpresako 3 jokalaririk hauek ez ziren erremonte-

an era berean hasi: batzuek odolean daramate, baina hirurak kirolarekiko gustuarengatik hasi ziren.

Amezketako Garikoitz Altuna II.ak anaia erremontista du, eta baita lehengusua ere: Etxeberria. Etxekoak erremonteko afizionatuak ziren, eta txikitan anaia ikustera joaten zen pilotalekuetara. Azkenean 19 urterekin debutatu egin zuen.


Zeberio elduaindarrak, aldiriz, palan jokatzeko, eta

azkenean, erremontearerkin hasi zen 18 urterekin, horretaz bizitzeko aukerak errazagoak ikusten zituelako.

Xanti Aizpuruaren kasuan, arrebaren ezagun batek animatu zuen, eta hala hasi zen.

## Erremontearen egoera

Kirol hau ez da telebistan horren erraz ikusten, ez eta jokatze ere: gorputzeko alde bat bakarrik erabiltzen da, saskia



Erremonteko saskia. HITZA

hartzen den aldea, alegia. Buruz buru, binaka, nahiz hirunaka ere joka daiteke.

Eskuz ibiltzen direnek baino abiadura handiagoa hartzen du 115 gramo ingurutako pilotak, palak egiten duen moduan.

Kirol bezala, ez dauka eskuz jokatzeko denaren indarririk ez harrerarik, inolaz ere, baina ez du esan nahi itsusiagoa denik. «Komunikabideak dira min egiten diotenak, oso gutxitan telebisatzen dute», haiek esaten duten moduan.

Eskolak gero eta gehiago indartzen ari dira, bai Nafarroan eta baita Gipuzkoan ere. Eskualdean nabaritzen ari da igoera eta, gainera, umeentzako material berezia egiten ari dira: plastikozko saskiak, esaterako, berez garestiak baitira.

Beste hainbat jokalaria ditugu eskualdean: Astibia, Zalakain, Gaztelu, Sarasua... Eta erremontean jokatzeko aukerak ere antzatz dira, asteartean, ostegunean, larunbatean eta igandean aritzen baitira. Ez dago ligarik, baizik eta enpresak antolatzen dituzten partidak. Dena dela, sanferminetako eta abuztuko buruz burukoak ikustekoak izango direla iragarri dute.

## AMEZKETA ▶ GIZARTEA

# Betizu jatean musika, bertsoak, beroa eta giro ona azpimarratu dute

Bertsoak espero ez zituztenengandik atera ziren egunean zehar

## N. URBIZU

EHUN bat lagunek dastatu zuten larunbateko betizua, Ugarteko frontoian. Betizua jan zutenek beroa pasatu zuten, eta trikitilarien musikarekin areagotu egin zen beroa, giroa «oso ona» izanik.

Trikitilariak ere bertsoak botatu zituzten. Ondoren, betizua

erre zuena ere horretara animatu egin zen, eguneko giro bikaina areagotuz.

06:00etatik, gutxi gorabehera, hasi zen erretzailea betizua prestatzen. «Horrela zegoen gero haragia, oso ona», zioen Ugarteko elkarteko kide batek. 21:00ak arte ibili ziren, auzoko taberna inguruan.

Jende asko ibili zen lagun-

zten, zerbitzen, eta mahaikoei kasu egiten. Horregatik, Ugarteko elkarteak hauei eskerrak eman nahi dizkie, «lanik ez duela ematen badu ere, baduelako, eta jendea honetarako beti behar delako». Era berean, jatera joandakoei ere eskerrik eman nahi dizkie, jai giroan igarotako egunaren parte izateagatik.



Beroa ez zen oztopoa izan ugartetarrentzat. HITZA

## KIROLAK ▶

## San Joan Txapelketan, «giro aparta»

**Erredakzioa** ▶ Zortzigarren urtez jarraian, Arsenal elkarteak antolatuta, San Joan Aretu Futbol Txapelketa burutu da, Tolosaldeko neska-mutil gazteek, kirola eginez, elkar ezagutzeko aukera izan dutelarik. «Giro ezin hobea» nagusitu da, eta «partaideen jarrera, antolatzailen harrera eta kiroltasuna azpimarratzekoak izan dira». Argazkian, parte hartu duten bi talde. HITZA



## ANOETA ▶

## Kiroldegiko arduraduna behar du Udalak

Anoetako Udalak pertsona bat kontratatuko du kiroldegiko arduradun bezala. Tolosaldean erroldatua egotea, INEMen alta emanda egotea, kirol teknikan ezaguera ziurtatzea, euskararen 3. perfila izatea izango dira baldintzak. Bestalde, jarduera fisikoa eta kirol zientzietan lizentziatua izatea, kirol munduan lana egina izatea eta kirolarekin zerikusia duten ikastaroak izatea baloratuko da. Aukeraketa INEMen bidez egingo da, eta hilaren 10a izango da bertan izena emateko epea. Informazio gehiago Anoetako udaletxean (943 65 12 00).

## BERASTEGI ▶

## Martxan da ludoteka zerbitzua

Ludoteka zerbitzua hilaren 28ra bitarte izango da, 15:30etik 17:30era, asteartean eta ostegunetan.

## iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentua. 635 74 52 91.

**SALGAI**

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Berrobin. 29 miloi eta erdi. [Negoziagarria.618.83.32.56](mailto:Negoziagarria.618.83.32.56).

## IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# 2005-06 denboraldia «oso baikorra» izan da Laubururentzat

Ibarra areto futbol taldeak eginiko lanarekin gustura daude ordezkariek; zaleen eta Udalaren laguntza eskertu dute



2005-06 denboraldiko Ibarra areto futbol taldeko jokalariek. I. TERRADILLOS

## ERREDAKZIOA

Euskal Koparen baitan, Belabietan jokatu eta porrotarekin amaitu zen partida izan zen Lauburu kirol elkartearen aurtengo denboraldiko azkena. Ibarra areto futbol taldeak egin duen lana kontuan hartuta oso

gustura azaldu da elkarteak; izan ere, Lehen A mailan hirugarren postuan amaitu zuten, bigarren postuan bukatu zuen Logroño taldearekin berdinduta, eta hori gutxi balitz, Euskal Kopan finalurrekoetara iritsi dira ibartarrak.

Pasa den urtearekin alderatuz, jokalarien artean ez da aldaketarik izan, eta hauek es-

perientzia hartu dutela izan da emaitza onak lortzeko gakoa. Ibarra taldea indartsuenetakotzat hartu dute Ligako aurkariak, eta David Prados eta Ion Ander Karrera bezalako jokalariek beterranoak taldeko motorra bezala dira ezagun ibartatik at. Gainerako jokalariek, maila handikoak direla eta eboluzio handia izan dutela bezalakoak entzun dituzte.

Bestalde, Lauburu elkarteak «maila honetako afiziorik onena bezala hartua izan den» Ibarra zaleak eskertu nahi ditu, Ligako garai onetan nahiz txarretan emandako babesagatik, eta baita Udala ere eskainitako laguntzagatik.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure web orriak, *Zeuk idatzi* izeneko atalalean. ▶

Zerbitzaria behar da ostiral eta larunbat guetarako eta iganderako

Tel.: 646 02 29 59

## IBARRA ▶

## Bake epailea eta ordezkoa izendatzeko deialdia

Eskaerak udaletxeko idazkaritzan aurkeztu ahal dira hilaren 10a baino lehen

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak maiatzaren 31n egindako ohiko osoko bilkuran Ibarra bake epailea eta ordezkoa izendatzeko prozedurari hasiera ematea erabaki zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. artikuluan eta Bake Epailei buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

Horretarako eskaera aurkeztu ahal da Ibarra udaletxeko idazkaritzan, eta azken eguna datorren astelehena, hilaren 10a, izango da. Bake epailea eta ordezkoa 4 urterako izendatuko dituzte.

Eskaera aurkeztu ahal izateko bete beharreko baldintzak ondorengoak izango dira: espainiar nazionalitatea izatea, adinez nagusia izatea, aipaturiko Botere Judizialeko Lege Organikoko 102, 302, 303 eta 389. artikuluek Kargu judizialek aurrikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzearen aitortpena, Ibarra erroldan izena emanda egotea, eta euskaraz jakitea.

## IBARRA ▶

## San Bartolome jaietako danborradan izen-ematea

## ERREDAKZIOA

San Bartolome jaietako danborradetan parte hartu nahi duenak herriko elkarteetan eta tabernatan jarri diren zerrendatan eman beharko du izena. Danborradan atera ahal izateko, gutxienez bi entseguetara joatea ezinbesteko baldintza izango da. Aurtengo entsegu egunak uztailaren 5a, 12a, 19a eta 26a eta abuztuaren 21a eta 22a dira. Udal kiroldegian izango dira, 20:00etan haurrena eta 21:00etan helduena. Bertan parte hartzerantz gonbidatzen dituzte herritar guztiak.

EUSKARA ▶



Bi herrietako allkateak eta Mendiguren bertan zirela, banaketara etorri ziren Aresoko eta Leitzako ziuertagiridunak. JAIONE ASTIBIA

# «Euskararen aldeko konpromisoak betez eta berrituz» lanean

Aresoko eta Leitzako 57 eragilek Bai Euskarari Ziuertagiriak jaso dituzte, hauetatik 9 entitate berriak dira egitasmoan



**JKIN BARANDARAIN**  
PAKE TOKI ELKARTEA

«Guk euskaraz egiten dugu, eta gero gurekiko harremanetan bestek ere euskaraz egitera behartzen dira horrela»



**AMAIA ASTIBIA**  
ZURLAN ZURGINDEGIA

«Bide hori hartu nahi duenarentzat laguntza ikaragarria da halako erakunde baten babesa eta zerbitzua izatea»

JAIONE ASTIBIA

«Pozgarriena, laz konpromisoak hartu zenituzten entitateek urtean zehar bete eta neurri berriak hartu dituzuela ikustea da, batzuk maila gainditu eta zerbitzua euskaraz ematera iristeraino, eta entitate berriak gehitu direla euskararen normalizazioaren aldeko prozesura». Lehengo ostiralean, horrelaxe zoriondu zituen Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkariak Aresoko eta Leitzako eragileak, Bai Euskarari Ziuertagiriari banaketa ekitaldian.

Bi herrietako 57 elkarte, saltoki, lantoki, eskola... arlo desberdinetako entitatek, finean, euskararen normalizazioaren alde urratsak egiteko konpromisoak hartu eta betez ari diren heinean, euskararen aldeko lanean 57 eragile osok, Bai Euskarari Ziuertagiriak jaso zituzten, txalapartariak, bertsoariak eta dantzariak ere parte hartu zuten ekitaldian. Iaztik, gainera, ekimenera 9 eragile berri gehitu direla nabarmendu zuten bertan, aurtengoarekin hirugarren denboraldia egin duen Bai Euskarari ekimenaz aritzean. Jarraipen batzordeak ere zoriondu zituen eragile horiek guztiak, «euskararen presentzia handitzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea ezinbestekotzat» joz.

Ildo beretik joan ziren eragileek hitzak ere, euskararen normalizazioan «denok gara ezinbesteko» azpimarratuz: «Lan handia egin dugu orain arte, eta aurrerantzean ere euskarak denok behar gaitu, denoi baitagokigu urratsak ematea». Bestalde, euskararen aldeko konpromisoak hartzea aitzindari lana egitea ere bade-lan ziuertatu zuten, «beste batzuk bide bera egin dezaten, bidea irekitzen ari gara: etorkizunari begira ari gara lanean».

Horrela, plazara bertaratu zen jendearen txalo artean eragile horiek guztiak zegozkien Bai Euskarari Ziuertagiriak jaso zituzten, hartutako konpromiso horien ezaugarri gisa; baita txistu soinuaren dantzari batek eskainitako Aurrekua ere,



Eragileentzat Aurrekua. J. ASTIBIA

omen gisa. Ekitaldia arratsaldeko mokaduarekin bukatu zuten.

Aresoz eta Leitzaz gain, Arano eta Goizueta ere biltzen dituen eskualdean, beste 21 eragilek ere jaso dituzte Bai Euskarari Ziuertagiriak. Orotara, beraz, 79 dira banatutakoak. Euskal Herri osoan, 100 herri-tara baino gehiagotara iritsi da Kontseiluaren ekimen hau, eta 1.280 entitatek eskuratu dute dagoeneko Bai Euskarari Ziuertagiria «euskararen aldeko konpromisoaren bidean etenik gabe aurrera eginez», Mendigurenek berak esan zuen moduan.

## ERAGILEAK ▶

## ARESO

1. Areso Kirol Elkarteak.
2. Aresoko Eskola.
3. Aresoko Guraso Elkarteak.
4. Aresoko Kultur Taldea.
5. Larrea elkarteak.
6. Leitza mandriladorea.
7. M. E. Latz.
8. Pake Toki elkarteak.
9. Usoa Ehiztari Elkarteak.

## LEITZA

1. Amazabal BHI.
2. Amazabal Guraso Elkarteak.
3. Arakindegia jatetxea.
4. Aritzeta landetxea.
5. Asketa abesbatza.
6. Aurrera Kirol Elkarteak.
7. Biok jantxidenda.
8. Denok Bat Guraso Elk.
9. Dia supermerkatua.
10. Erbiti farmazia.
11. Erleta eskola.
12. Etxeturia elkarteak.
13. Etxe Tresnak S.L.
14. Fisioetxea.
15. Gabriel Saralegi.
16. Gartziaarena arraindegia.
17. Gaztañaga taberna.
18. Gaztelu Iturgintza.
19. Gerardo Arrupea, Mapfre.
20. Goiko lorezaintza.
21. Gorritz Arume eta Gazta.
22. Gorritz S.L.
23. Haur Eskola.
24. Jose Larrañaga S.A.
25. Kapritxo.
26. Karrape Irratia.
27. Kultur Taldea.
28. Leitza Asesoria S.L.
29. Leitza garajea.
30. Leitzako IKA euskaltegia.
31. Leitzako jubilatua elkarteak.
32. Lenitz ardandegia.
33. Lizarraga harategia.
34. M. Plaza farmazia.
35. Maddalen Lazkano.
36. Mendibil mendi taldea.
37. Musunzar ostatua.
38. Peritza taberna.
39. Perurena harategia.
40. Ramon Lizarraga, Aliprox.
41. Sagasti jatebetea.
42. Saharar Herriarekin E.T.
43. Guratz mendi elkarteak.
44. Talotegia.
45. Torrea kultur elkarteak.
46. Urkiola harategia.
47. Zortzikio Labetxea.
48. Zurlan zurgindegia.

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
totalaldean@totalaldekohitza.info

hilberria ▶



**Mari Kruz Mendizabal**  
**Eizmendi**

*Eskerrik asko,*  
*Mari Kruz*

Izeko Emili

Oharra: Uztailaren 2an hil zen

ZARAUZT, 2006ko uztailaren 5a



Harpidedunei banatua ▶ 2006ko uztailaren 5a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Berastegi.** Ludoteka zerbitzua hilaren 28ra arte, 15:30etik 17:30era. Astearte eta ostegunetan, bukaeran patin ikastaroa egiteko aukera izango dute umeeak.  
**Tolosa.** Tolosako Bide Ertzean taldeak eta Cottik irailaren 9an zezen-plazan emango duten kontzerturako sarrerak salgai daude Servikutxan (www.kutxa.net) eta 943 00 12 00 telefono zenbakian.  
**Tolosa.** Paintballean jokatzeko irteera antolatu du Gazte Topaguneak. 09:00etan abiatuko dira, Triangulotik.  
**Tolosa.** Bihar Betelura egun-pasa antolatu du Gazte Topaguneak. Irteera, 10:30ean, Triangulotik. Bazkaria eraman behar da. Prezioa: 3 euro.  
**Tolosa.** Hilaren 11-12an Lekunberrira irteera antolatu du Gazte Topaguneak. Zaldian ibili, igerilekua, ibilaldia Leitzaranen, lo kanpingean... Irteera, 10:30ean, Triangulotik. Prezioa: 30 euro. Bazkaria eta zakua eraman behar dira.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Hernalde.** Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.  
**Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen lanen erakusketa. Hilaren 8a arte bisita daitezke, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.  
**Tolosa.** Iñaki Epelderen,



**Donejakue bideari jarraika, Tolosako herritik barrena**

**TOLOSA ▶** Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak iaz egindako Turismo Plan Estrategikoaren ostean, eta «Tolosako Alde Zaharreko birgaitze prozesuaren barnean», Donejakue bideak Tolosaldean duen garrantzia bistaratzeko hainbat ekimen egin dituzte dagoeneko Tolosan. Apirilean, esaterako, jardunaldi berezi

batzuk egin zituzten, eta bidea nondik nora doan argitzen duten lehen seinaleak jarri zituzten, Trianguloan (ezkerreko irudian). Pixkanaka joan dira sarea osatzen, eta aurreko asteetan jarri dituzte beste hainbat lekutako seinaleak, Berazubitik Iurrerako eremuan, besteak beste (eskuineko argazkian). N. LATABURU / L. MONTES

Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren margolanak, Errota tabernan ikusgai.  
**Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...  
18:00-19:00. Irauli uhinak.  
21:00-22:00. Bide okerretik.  
22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Udane Sarasola, Ebekoen eta Migelen partetik zorianak. Zorianak ere 2 domina ekartzeagatik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker. Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tarte

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**

2006 Harpidedetza kobraketa kanpaina

**ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!**

**HELBIDERATU ZURE KUOTA**

**EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA**

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian

